



**ENPLEGU ETA TOKIKO GARAPENENKO PLANA GARATZEKO PROGRAMA KUDEATZEKO
TEKNIKARIAREN HAUTAKETA PROZESUA
Azterketaren Balorazioan Aplikatuko diren Irizpideak**

Balorazioa ondorengo irizpideetan eta honako puntuazioetan oinarrituta egingo da:

MEREZIMENDUAK %20 gehienez

Esperientzia egiaztatua 10 puntu

- Administrazio publikoan izandakoa 0,2 puntu hileko.
- Enpresa pribatuan 0,15 puntu hileko.

Prestakuntza osagarria 10 puntu

- Prestakuntza osagarria 5 puntu
(Ez dira kontuan hartuko 100 ordu baino gutxiagoko prestakuntzak)
- Tresna eta gaitasun digitalak 5 puntu
(Egiaztatuta izan beharko dira)

PROBA TEKNIKOAK %55 gehienez

Gaitegi Orokorra 20 puntu

(Baztertzailera, gutxienez 10 puntu beharko dira praktikoa zuzentzeko)

Gaitegi Espezifikoak - Proba praktikoa 35 puntu

ELKARRIZKETA %25 gehienez

Elkarrizketan azterketa praktikoan egindako ariketen inguruko galderak egiteko aukera izango da, eta oinarri bezala erabili ahal izango du epaimahaiak.

Aztertuko direnak:

- Koordinazio eta dinamizaziorako gaitasuna 15 puntu (gehienez)
- Idazketa eta komunikazio argitasuna 2 puntu (gehienez)
- Administrazio publikoaren testuinguruan lan egiteko egokitasuna 3 puntu (gehienez)
- Lidergo teknikoa (eragile anitzekin) 5 puntu (gehienez)

Azterketa prozesua gainditzeko eta eratuko den lan poltsan sartzeko, gutxienez 50 puntu lortu beharko dira.

MEREZIMENDUAK (20 puntu gehienez)

A.- Esperientzia egiaztatua: 10 puntu gehienez

- Administrazio publikoan izandakoa 0,2 puntu hilabeteko.
- Enpresa pribatuan 0,15 puntu hilabeteko

Aurkeztu beharko den frogagiria: Enpresako lan ziurtagiria (Administrazio publikoa edo enpresa pribatua izan) non adierazten den lana egindako denbora zehatzak.

B1.- Prestakuntza osagarria egiaztatua: 5 puntu gehienez

Ondoko gaiekin erlazionaturiko 100 ordu baino gehiagoko ikastaro edo prestakuntza aintzat hartuko dira:

- Lurralde eta tokiko garapenarekin erlazionaturiko prestakuntza
- Lan merkatua eta enpleguaren analisia eta kudeaketarekin erlazionaturiko prestakuntza
- Lurralde zein tokiko egitura sozio-ekonomikoarekin erlazionaturiko prestakuntza
- Adierazle sistemak eta datuen esplotazioarekin erlazionaturiko prestakuntza
- Parte hartze eta erraztatzaile metodologietan jasotako prestakuntza
- Plan estrategikoen idazketa eta garapenarekin jasotako prestakuntza

B2.- Tresna eta gaitasun digitalak egiaztatuta: 5 puntu gehienez

Egiaztatutako tresna edo gaitasun digital bakoitzeko 1,5 puntu. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira.

- Excel/ Sheets maila aurreratua
- Aurkezpen erremintak (Power point/Slides) maila aurreratua
- Datuen bistaratzea (Power BI edo antzekoa)
- Adimen artifizialeko erremintak

PROBA TEKNIKOA (55 puntu gehienez)

- Gaitegi orokorrean oinarritutako test proba (baztertzailea) 20 puntu gehienez. Gutxienez 10 puntu lortu beharko dira proba praktikoa zuzentzeko aukera izateko.
- Proba praktikoa. Gaitegi espezifikoan oinarritutako proba idatziak. 35 puntu gehienez

ELKARRIZKETA (25 puntu gehienez)

- Proiektuak kudeatzeko eta koordinazio zein dinamizaziorako gaitasuna (15 puntu gehienez). Ondoko konpetentziak aztertuko dira:
 - Datuetan oinarrituta diagnostiko sozioekonomikoak garatu izana.
 - Eragileen mahaia dinamizatu izana (enplegu eta prestakuntza foroak, tokiko garapenari buruzko foroak, enpresa foroak, e.a.)
 - Proiektu edo programen gidaritza edo lidergoa eraman izana.
 - Lurralde edo tokiko garapenarekin erlazionaturiko proiektuen kudeaketan aritu izana.
 - Proiektuen finantzaketaren kudeaketan aritu izana (Erkidego, Estatuko edo Europar proiektuak eta finantzaketa programak)

- Administrazio publikoaren testuinguruan lan egiteko egokitasuna (administrazio publikoko kudeaketa administratiboan jakintza eta eskarmentua). (3 puntu gehienez)
- Idazketa eta komunikaziorako ahalmen eta argitasuna. (2 puntu gehienez)
- Lidergo teknikoa garatzeko ahalmena eta prestutasuna. (5 puntu gehienez)

EPAIMAHAIAREN IZENDAPENA:

Lehendakaria:

- Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave (Debagoieneko Mankomunitateko idazkari kontu-hartzailea)

Bokalak:

- Koldo Azkoitia Zubizarreta (Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako arduraduna)
- María Jesús Unamuno Vega (Bergarako Udaleko Enplegu Teknikaria).

Idazkaria: Itziar Galdos (Zerbitzu Orokorretako administraria)